

# HARREMANAK

Bezeroekiko lortu nahi dugun harremana:

- Bezero edo kontsumitzaile berriak lortzea.
- Enpresak dauzkan bezeroei eustea.
- Salmenta kopurua handitzea.

Gure enpresa berria denez, hasieran publizitate kanpaina agresiboak erabili beharko ditugu: iragarkiak, publizitatea etxez etxe...).

Gure bezeroekin nahi dugun harreman mota pertsonala da; Eskainiko dugun zerbitzu bakoitza erabat pertsonalizatua izango da, eta horretarako, aldez aurretik bezero bakoitzarekin akordio batera heldu beharko gara enpresa nahiz bezeroa, eskaini eta jasotako zerbitzuarekin, ados egon daitezen.

Bestalde, etorkizunean, zerbitzu automatizatua eskaintzea gustatuko litzaiguke. Adibidez, bazkide bakoitza bere bezero-txartela eduki ahal izatea ordainketak azkarrago egin ditzan.

